
Eurasiako orain arteko bitxi apaindurik zaharrena



Stajnia kobazuloan (Polonia) aurkitutako zintzilikari apaindua. ARG.: Antonino Vazzana/BONES Lab.

Mamut-letaginez egindako zintzilikari apaindu bat da orain arte aurkitu den Eurasiako bitxirik zaharrena. Stajnia kobazuloan aurkitu zuten (Polonia), 2010ean, zaldi-hezurrez egindako tresna batekin batera, eta, erradiokarbonoaren datazio zuzenaren bidez, 42.000-37.000 urte dituela kalkulatu dute. Egileen arabera, ezagutzen den bitxi apaindu zaharrena da, eta pentsamendu sinbolikoaren sorrerarekin eta *Homo sapiens* espeziearen hedapenarekin erlazionatuta dago. [Scientific Reports aldizkarian eman dute ikerketaren berri.](#)


Ikertzaileek azaldu dutenez, itxura obalatua du, eta 4,5 cm luze eta 1,5 cm zabal da. Bi zulo ditu, haietako bat osorik, eta puntutxo apainduta dago. 50 puntu baino gehiago dira, kurba irregular bat marrazten dutenak.

Eurasian aurkitu diren arte eramangarriaren beste adibide batzuekin alderatu dute, eta esanahia argitzeko hipotesi batzuk ere aztertu dituzte. Halakoe-tan, iradoki izan da ehiza zenbatzeko markak izan zitezkeela, edo egutegi-moduko bat, Ilargiaren edo Eguzkiaren zikloan oinarritutakoa, baina ez dute baztertu edertzeko izatea, besterik gabe. ●

NASaren zunda bat Eguzkiaren koroan barneratu da

Duela 60 urte amestutako helburua lortu du NASAK: zunda bat Eguzkiaren koroan barneratu du lehenengo aldiz. Alegia, kanpo-atmosferan. "Zundak Eguzkia *ukitu* du", adierazi zuen Thomas Zurbuchen NASako zientzialariak, pozez.

2018an jaurti zuten Parker Solar Probe zunda. Eguzkitik gero eta gertuago zegoen, eta apirilean konturatu ziren koroan sartu zela. Koroan bost orduz egon zela adierazi dute. Denbora horretan, Eguzkiaren partikulak eta eremu magnetikoa aztertzekeo laginak hartu zituen. Aste honetan argitaratu dute [Physical Review Letters](#) aldizkarian.



Parker Solar Probe zunda, Eguzkiaren koroan sartzen. ARG.: NASaren ilustrazioa.

NASAK espero du eskuratutako informazioak balioko duela izarrak gure eguzki-sisteman duen eragina hobeto ulertu ahal izateko. Besteak beste, astrotik ateratzen den eguzki-haizeaz eta eguzki-sisteman jaurtitzen dituen partikula energetikoei buruz. ●